

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4504

AGINDUA, 2022ko irailaren 26koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Murrieta-Colegio Hijas de la Cruz izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko uztailaren 14an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko 2022ko uztailaren 5eko eskritura, Madrilen emana Luis Quiroga Gutiérrez notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1717). Eskritura horren bidez, publiko egiten dira Patronatuak 2022ko ekainaren 17an hartutako erabakiak, erakundearen izena aldatzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko estatutu-aldaketa berresteari buruzkoak. Estatutuak legera egokitzeko aldaketa hori lehenago formalizatu zen, Madrilen, 2018ko ekainaren 11n, Luis Quiroga Gutiérrez notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1302).

Aurrerantzean, fundazioa Fundación Cristóbal Murrieta deituko da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Murrieta-Colegio Hijas de la Cruz izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko adostu baitzen, Agindu honen datarekin; 2018ko ekainaren 11n, Madrilen, Luis Quiroga Gutiérrez notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan ezarritako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 1302). Eskritura hori berretsi egin zen Madrilen, 2022ko uztailaren 5ean, notario beraren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1717).

Bigarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Murrieta-Colegio Hijas de la Cruz fundazioaren izenaren aldaketa, agindu honen datarekin,

2022ko uztailaren 5ean, Madrilén, Luis Quiroga Gutiérrez notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 1171).

Fundazioa, aurrerantzean, Fundación Cristóbal Murrieta deituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 26a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.